

ELKARRIZKETATZAILEA: AMAIA NEGRO ITURREGI

ELKARRIZKETATUA: MIREN LANDETA

ELKARRIZKETA DATA: 25/06/2010

LEKUA: MUXIKA

ELKARRIZKETAREN IRAUPENA: 01:03:57

MINUTUEN ARABERA TRANSKRIPZIOA

00:00:00 Aurkezpena

00:01:30 Aita gaztetan lan diferentetan aritu zen: morroi, lantegian lanean, itsasoan. Gero baserrira ezkondu zen. Bere ama izan zen baserrian geratu zena.

00:03:32 Gurasoek baserritik bizi: esnea saltzen zuten eta Gernikako plazan saldu

00:04:02 Bera ezkondu zen eta beren lurretan egin zuten etxe batera etorri ziren bizitzera. Bere gizona kanpoan egin du lan beti. Gaztetan umeak zaintzera joan zen eta josten ikasi zuen

00:05:02 Bere osaba-izebak taberna bat zuten. Tio alargundu eta hara eraman zuen lanera bera. Berak ez zuen nahi, oso timida zela, eta zitzaion gustatzen tabernako barran egotea. Txarto pasatu zuen.

00:06:12 Bera 31 urterekin ezkondu zen. Gizona beti lan egin du kanpoan. Gizonaren familian anaia nagusia geratu zen baserrian, beste arreba bat bertan geratu zen be bai, laguntzen.

00:07:30 Bere aita hil arte behiak euki zituzten eta ortuko lan guztiak egiten zituzten.

00:09:10 Eskolatik etorri eta bakoitzak bere beharrak zituen. Bi neba joan ziren ikastera, bestea berarekin gelditu. Gurasoen lanari lagundu: Iturrira ura bila, egurra txikitu, txapan sua egin.

00:11:05 Auzoan egoten ziren lagunekin. Handitu zirenean, Gernikara domeketan joaten ziren, bizikletaz edo oinez. Txakur handi bi ordaintzen zuten komunera joateko.

AHOA Ahozko Historiaren Artxiborako Elkarte

00:13:43 Bere garaitik hona aldaketa itzela egon dela aipatzen du. Eurek ez zekiten jostailuak zer ziren bez.

00:14:46 Gernikara jaietara. Dantzetan aritzen ziren. Gurasoei permisua eskatzen zioten pixkat geroago etortzeko. Nebek beti geroago etortzen ziren.

00:17:10 Bere bizitza guztia izan da, edo lagundu baten bateri edo lanean egon.

00:20:33 Gauza handirik ez duela kontatzen esaten du

00:20:50 Errentan hartuta zuten baserria. Conde Arana-rena zen baserria. Aitak erosi zuen baserri guztia eta propietario bihurtu zen. Gero baserria anaia solteroarentzako laga, eta honek ezer ez egin baserriarekin.

00:22:54 Bere amamak ama baserrira ekarri zuen. Ama neskame zegoen beste etxe baten eta 14 urtez ekarri zuen, aita hil zela. Aititeak hil baino lehen amamri gomendatu zion alaba etxera ezkontzea berari laguntzeko.

00:25:30 Amama bera bakarrik geratu zen baserrian. Koinatu batek labrantzan laguntzen zion. Baserriko beste lanetan, alabak laguntzen zion, beste semeak ume txikiak ziren oraindino

00:26:36 Amama bere antza dauka. Ama trankila zen oso.

00:27:26 Aitak baserrira ezkondu eta bertako lanetan aritu zen gero.

00:28:33 Ezkontzara eman beharreko dotea zelan banatu egiten zen baserrian. Propietateko baserrietan gehiago izaten zen ohitura, errentako baserrietan baino.

00:30:22 Amama eta ama, biak plazara joan izandakoak. Auzoko askok astoan eramaten zituen produktuak Gernikara. Berak ez du inoiz nahi plazara joan.

00:33:16 Bere osabak luzaroan geratu ziren baserrian amarekin. Kanpoan egiten zuten lan eta baserrian ez zuten lanik egiten gero. Amak eurentzako arropa eta gauza guztiak eukitzen zituen prest.

00:35:32 Gurasoek beste etxe berri bat egitea erabaki zuten baserria konpondu baino. Pisu baten gurasoak eta neba solteroa geratu ziren

AHOA Ahozko Historiaren Artxiborako Elkarte

eta bestean Miren eta bere familia. Miren beti egon da besteak zaintzen.

00:37:26 Neba solteroa baserriaren propietadean gelditu zen. Mirenek nahi izan zuen Gernikara joatea bizitzera baina gurasoek eskatu zioten baserrian geratzea eurek zaintzen. Bera ez zen izan gai gurasoei ezetz esateko.

00:40:14 Badaude bere inguruan gurasoei ezetz esaten jakin izan dutenak, baina bera ez. Nebarekin be bai, bere amak dana egiten zion berari eta orain pentsatzen du arrebak berdin egin behar duela

00:41:15 Gurasoek berari pinudi batzuk eman zizkioten.

00:42:20 Orain baserrian segitzen dute lan batzuk egiten, artoa eta indaba batez be eta ortuko gauzak. Amak egiten zuen lan asko. Taloak egiten dituzte.

00:45:24 Orain gazteek baserrian ez dute lan egin nahi. Lehen auzoan danek bizitzen ziren baserritik, orain bi edo, baino ez dira bizitzen. Baserria ez du ematen gaur eguneko martxan bizitzeko.

00:48:38 Lehen etxean egiten ziren jateko produktuak etxeko lanagaz: garia, ogia, artoa.

00:51:00 Eskolan txikitan euskeraz ezin egin. Irakasle bat haserretu zen berarekin erderaz ondo ez egiteagatik.

00:53:41 Lehen emakumeak baserrian gizonaren beste egiten zuen lan. Lan gogorra izaten zen, bai soloan, bai etxean.

00:57:30 Baserrian bizi izan dela beti sentitzen du, baina ez da baserriko lanetan asko aritu, baserriko lan gogorrak ez ditu egin, bere amak egin zituen bezalaxe. Bertan ez delako gogor aritu, ez du bere burua baserritarra ikusten.

01:00:03 Lehen etxerainoko lagunak izaten ziren, etxera laguntzeko lagunak. Bere lagunak ez dira baserritik bizi.

01:01:54 Berak dakiena kontatu du, ez du uste baloreko gauzak direnik.